

GIL 83 Zazpiturrietako ur-begia



Zazpiturrietako ur-begia Txindokiren oinaldean dago, eta Aralar mendilerroaren iparraldeko frontearen sektore urgondarreko ura husten du.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 2' 9,79" N

Long.: 2° 5' 8,55" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 574.479,08 m

Y: 4.765.223,84 m




Nola iritsi

GI-2133 errepideak Larraitza eramango gaitu. Aparkaleku handitik, Txindokiren (Larrunarrien) gailurrera igotzeko biderik ohikoenetik, Iraegi baserrirantz doan bidezidor bat hartu behar da ekialderantz, baina, bidegurutzean, eskuineko bidea hartu behar da. Orein-haztegi batetik pasatu behar da, eta, handik 200 bat metrora, ur-begira iristen da, erreka bat gurutzatu ondoren. Agorraldian, emari txikia du errekaak, baina euri asko egiten duenean ez da hain erraza zeharkatzen. Jarraitu Larraizko aparkalekutik ateratzen den PR markatuari.



Beheko mailetako bat agorraldian.



2011ko azaroaren 5etik 7ra aforalekuan erregistratutako hamar minutuan behingo emariak (L/s) eta Alegiako estazioan erregistratutako prezipitazioa (urdinez).

GILaren deskribapen laburra

Ur-begiak zenbait irtengune ditu kota gero eta garaiagoetan kokatuak (315, 325, 335, 340 m); bi garaienak aldi batekoak dira, eta urak handi direnean baino ez dira aktibatzen. Beheko hiruren gehieneko emaria 1.000 L/s inguru da; kantitate hori gainditzen denean, goragoko irtengunea aktibatzen da. 1988tik, aforaleku batek kontrolatzen du irtengune guztien ekarpena (Amezketak hornitzeko eta industria-erabilerarako desbideratzen dena izan ezik). Aforaleku horretan, 10 L/s-ko gutxieneko emariak eta 6.000 L/s inguruko gehienekoak (2011/11/06) erregistratu dira modu puntualean.

Konplexu urgondarraren sabaiko kareharrietan kokatutako akuiferoa 6,2 km² inguruko azaleratze bat da; haietatik, 5,3 km² Txindokiko ipar sektoreari dagozkio. Deskarga-puntu nagusia Zazpiturrieta da; urtean, batez beste, 497 L/s inguruko emaria du. Akuifero horrek, gainazalean, morfologia karstikoa du. Akuiferoaren funtzionamendua karstiko motakoa da, *sensu stricto*.

Duela gutxi arte, uste zen Zazpiturrieta deritzon sektoreko kareharri urgondarrak baino ez zituela drainatzen Zazpiturrietak; hala ere, Felix Ugarte elkarteak 2010ean traza-tzailearekin egindako saiakuntzak erakutsi zuen Osinberde sektoreko kareharri jurasikoaren parte bat ere Zazpiturrietarantz drainatzen dela.

Aipatutako saiakuntza horretan, injekzio-puntua, Arritzaga erreka-estekoaren buruan, Doggerreko kareharrietan kokatu zen. Zona horretan, seriea alderantzikatuta dago, eta, batez beste, 45°-ko okerdura du hegoalderantz; Doggerreko kareharriak serpulazko kareharri neocomiarren gainean daude, kontaktu estratigrafikoan; kareharri horiek, bestalde, fazies urgondarretako lutita barremiarren gainean daude. Fazies horiek bereizten dituzte kareharri urgondarretatik, zeinetan baitago Zazpiturrietako ur-begia. Arritzaga



Goiko mailetarako ur-hartune bat dago. Hondoan, Txindokiren gailurra.



Arritzagako ur-begiak frogatu du Zazpiturrietak mendilerroko sektore jurasiko zentraletik datozen urak ere drainatzen dituela. Lehen, sektore hori Osinberdeko ur-begiarekin bakarrik erlazionatzen zen.

haranaren zeharkako lerroan, kareharri urgondarrak oso masiboak dira; 1.500 m lodi dira, edo are lodiagoak (iparraldean, zamalkadura basalak eteten ditu; horregatik, ezin zaio antzeman serie osoari), eta ez dago ia tuparri-geruzarik tartekatuta.


Egiturari dagokionez, Uzkuitik zamalkadura-frontetik iparralderantz dago injekzio-puntua, 100 m baino gutxiagoko distantziara —oinplanoan neurtua—, dozenaka metro batzuk fronte horren azpian, haren autoktono erlatiboan. Zazpiturrietako ur-begia, bestalde, kareharri urgondarren oinean dago, zamalkadura basalaren kontaktua gainean; beraz, Uzkuitik zamalkaduraren autoktono erlatiboan dago bera ere.

Ez dago frogarik ez aztarnarik bidea eman dezakeenik pentsatzeko hobiaren eta ur-begiaren artean zamalkadura edo alderantzizko failaren bat dagoela kareharri jurasikoak kareharri urgondarrekin kontaktuan jar ditzakeena.

Horrenbestez, badirudi bi formazioak kontaktuan jartzen dituen egitura bakarra NW-SE faila-sistema dela, hau da, Muitze eta Arritzagako failak.

Zazpiturrietako ur-begiaren kasuan, emari-datuak ezagunak dira, baita euri erabilgarriak ere. Gainera, lurraren gainazalean erortzen den euri ia guztia zorupean infiltratzen da lapiazean barrena; hala ere, ur-begira isurtzen duen arroaren azalera zehatza ezezaguna da. Nolanahi ere, balantze hidrikoak aukera emango digu datu hori jakiteko. Zazpiturrietan, hauek dira urteko batez besteko datuak:

- Urteko batez besteko prezipitazioa: 1.900 mm
- Ebapotranspirazio erreala: 600 mm (prezipitazioaren % 31,5)
- Euri erabilgarria (prezipitazioa – ebapotranspirazioa): 1.300 mm
- Baliabideak (ur-begitik isurtzen den ura): 15,6 hm³ (497 L/s)



Datu horiek izanik, ur-begira isurtzen duen arroaren azalera (S) jakiteko, baliabide-bolumena euri erabilgarriaz zatitu behar da, eta besterik ez. Beraz:

- S= baliabideak/euri erabilgarria
- S= 15.600.000.000 L/1.300 L/m²
- S = 12 km²


Horrenbestez, Zazpituurrietako ur-begitik ateratzen den ur-kantitateak 12 km² inguruko azalera batetik etorri behar du.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 9, GIL 87, GIL 106, GIL 112.
- **Gaiari dagokionez:**, GIL 10, GIL 82, GIL 84, GIL 85, GIL 86



GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				●
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Felix Ugarte Elkarte, URA. (2010): *Ensayo con trazador en el Sumidero de Arritzaga*. Aurretxostena.
- EEE (1996): *Euskal Autonomia Erkidegoko mapa hidrogeologikoa*, 1:100.000 eskalakoa.